

Langileak ba al dauka aberririk?

Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera eta garapena

Ludger Mees

EHUko Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Leioa

Mugimendu nazionalak eta gizartearen garapen industrial-kapitalista txanpon bateko bi aldeak baino ez dira, "iraultza bikoitzaren" (E. J. Hobsbawm) bi osagaiak. Ondorioz, langilegoaren eta nazioaren arteko harremanak eta harreman hauen inguruko eztabaidak ugariak izan dira XIX. mendeaz geroztik. Nazioarteko testuinguru hau abiapuntu hartuz, artikulu honetan Euskal Herriak ezagututako klase eta nazioaren arteko dialektika eztabaidatzen da. Dialektika honen fruiturik nabarmenetaritakoa 1911n sortutako ELA sindikatu nazionalista da eta Berrezarkuntzaren garaiko bere garapena eta iharduera sindikalista dira artikulu honen ardatz nagusiak. ELAren sorrera, bere kideen perfil soziala, ideologia, praxi sindikala eta nazionalismo politikoarekiko harremanak dira atal desberdinetan aztertzen diren gaiak. Ondorioetan, besteak beste, nazionalismoak klase guztietan, eta ez bakarrik burgeserian, –marxista klasikoek pentsatzen zuten bezala,– sartzeko duen ahalmena baieztatzen da.

The national movements and the industrial-capitalist modernization of society are just two sides of the same coin, the two components of the "Double Revolution" (E.J. Hobsbawm). Consequently, since the 19th. century there have been frequent relations between the working class and the national question, as well as polemical discussions about the character of these relations. In the frame of this broader historical context, the article discusses the dialectic between class and nation in the Basque Country, focusing especially on the historical development during the Restoration-Monarchy of the nationalist trade union ELA, founded in 1911. In the different chapters, we outline a brief analysis of the foundation of ELA, the social profile of its members, its ideology and sindical praxis, as well as its relations to political nationalism. Among other conclusions, we could like to underline the ability of nationalism to potentially penetrate all social classes, not only the bourgeoisie as was supposed by the marxist classics.

Nazionalismoa eta klase sozialak: errealitate historikoa eta eztabaida teorikoa

XIX. mendean zehar, Europako herriek eraldakuntza-prozesu sakon bat jasan zuten, Eric Hobsbawm historialari ingelesak "iraultza bikoitza" bezala definitu zuena, hain zuzen. Alde batetik, iraultza bikoitz honek mugimendu nazional batzuk sortu zituen, mugimendu horien helburu nagusia honako hau izaten zelarik: absolutismo, noblezia eta kleroarekiko menpekotasuna gainditzea eta estatu-nazioaren esparruaren barruan hiritar guztien berdintasun juridikoa ziurtatzea. Bestalde, kapitalismo eta industrializazioaren garapenak lurperatu egin zuen behin betirako antzinako gizarte estamentalak. Klase-gizarte kapitalistaren adierazgarri nagusienetarikoa bi klase berrien arteko gatazka zen, langileriaren eta burgeseriaren artekoa hain zuzen. Beraz, begi bistan gelditzen da nazionalismoaren eta klase sozial berrien sorrera prozesu historiko berberaren ondorio paraleloak besterik ez direla eta hori dela eta, logikoa da biek elkarren gaineko eragina izatea.

Langileriaren eta nazionalismoaren arteko harremani buruzko eztabaida historikoa da, batez ere langile-mugimenduaren barruan. Guztiz ezaguna dugu Marx-en tesi ospetsua: langileek ez daukatela aberrik eta proletalgoaren garaipenak eta bote-reak "desagerrarazi" egingo zuela nazionalitatea irakur dezakegu Manifestu Komunistan. Nahiz eta nazionalismoari buruzko teoriarik inoiz ez landu, Marx eta Engelsen pentsakeran nazionalismoa guztiz loturik gelditzen zen burgesiarekin, eta horrekin bat zetozen beste teorilari marxista batzuk

ere, hala nola R. Luxemburg edo K. Kautsky.

Historiak eta baita azken hamarkadetan egindako ikerlanek ere gezurtatu egin dute interpretazio ekonomizista eta erredukzionista hori. Nazionalismoa muga sozialik ezagutzen ez duen fenomeno konplexu eta anbigoa da. Printzipioz, edozein klase edo talde sozialetan sartzeko gauza da, baita langile-klasean ere, zenbait adibidek argi eta garbi frogatzen duten bezala. Adibide ezagunak besterik ez aipatzearren, horra hor II. Internazionalerako langile-erakundeen zatiketa nazionala Inperio Austro-Hungariarren barruan, edo erakunde hauek bere gobernu nazionalerako erakutsitako elkartasuna Lehen Mundu-Gerraren hasieran ere. Baina ez dugu hain urruti joan beharrik nazionalismoak klase sozial desberdinetan, eta baita langile-klasean ere duen erakarpina frogatzeko, ELA sindikatu nazionalistaren sorrera eta garapena Euskadiko mugimendu nazionalistaren barruan erakarpen horren froga argia baita.

Euskadiko nazionalismoa eta klase sozialak

Euskadiko mugimendu nazionalistaren barneko egitura soziala epe nahikoa laburrean dexente aldatu zen. Sabino Arana hil zenetik (1903an) Lehen Mundu-Gerrara bitartean gauzatu zen aldaketa hau. Javier Corcuera erakutsi duen bezala, epe honen hasieran burges txiki batzuk sortutako mugimendu ahul eta erdiklandestinoa zen, gizartearen bazterketa eta autoritateen zapalkuntza jasan behar izaten zuen gutxi batzuen mugimendua hain zuzen. Bere buruzagi karismatikoa hil eta gero,

Sabinok piztutako mugimendua laster desagertuko zela zioten ahots batzuk entzun ziren nazionalismotik at, nahiz mugimenduaren barruan. Halere, ondorengo urteetan jeltzaleek bere bazterketa pausuz pausu gainditzea lortu zuten, horretarako mugimenduaren antolakuntza sendoa guztiz lagungarri suertatzen zitzaielarik, hala nola alderdi politiko moderno baten aparatu efikaza, bere inguruko mota anitzeko elkarte ez-politikoak edo programa eta propaganda kaleratzeko sortzen zen prentsa indartsua. Honen ondorioz, Lehen Mundu-Gerrak Europako herri gehienetan giro nazionalista piztu zuenean, 1914 eta 1918 bitarteko epean bere “urrezko urteetara” iritsi zen Sabino Aranak sortutako mugimendua. Garai horretan, nazionalismoak modako ideologia izatea lortu zuen, baita Bizkaiko goiko klase sozialetan ere, nahiz eta klase burges hauek historikoki nazionalismoaren aurkakoak izan. 1917ko krisi latzak Espainiako sistema monarkikoaren ustelkeria azaleratu zuen eta, jakina, egoera horretan indar politiko alternatiboak, eta horien artean nazionalismo periferikoak, sendotu egin ziren.

Halere, nahiz eta burgeseriak Euskadiko mugimendu nazionalistaren barruan eragin handiagoa lortu, euskal nazionalismoak jarraitu zuen klasearteko mugimendu izaten. Izan ere, nazionalismoa “gorantz” haztearekin batera, klase ertainetan eta “beherantz” ere hazi egin zen, gero eta langile gehiago biltzen zituelarik, bai pasiboki hauteskundeetan langileen botoak jasoz, bai aktiboki ELA sindikatuaren afiliatu-kopurua handituz.

ELA Berrezarkuntza garaian

Sorrera eta bazkideak

1911ko ekainean “Solidaridad de Obreros Vascos-Eusko Langileen Alkartasuna” sindikatua sortu zenean gauzatu zen Sabino Aranak 1897an kaleratutako proposamena. Urte horretan, Aranak euskal langileei dei egin zien elkarren artean antola zitezen “zapalkuntza burges despotikoari” eta “zapalkuntza maketoari”, hau da, etorkinen eta langile-erakunde sozialistek, Aranaren ustez, burututako zapalkuntzari aurre egin ahal izateko. Sabino hil eta gero, mugimendu nazionalistaren barruan arazo honen inguruan eztabaida eta polemika piztu zen. Alde batetik, jeltzaleen buruzagi gehienek argi eta garbi ikusten zituzten arazo sozialaren ondorio latzak gizartearen behe eta erdiko mailetan. Zerbait egin beharra zegoela elkarte sozialistaren aurrerapausuak geldiarazteko bazekiten. Baina, bestalde, jeltzaleen artean ez zegoen adostasunik arazo sozialaren aurrean euren estrategia finkatzerakoan. Bi proposamen bereiz zitezkeen. Jeltzale kontserbadoreek langile-elkarte katolikoek indartzea defendatzen zuten. Alderdi politikoen gaineko mugimendu zabal bat baino ezin izango zela lehiatu sozialismoarekin zioten. Jeltzale horien arabera, katolizismo sozialaren zatiketak sozialismoarentzako laguntza baino ez zen izango. Nazionalismoa bera ere kalteturik aterako zela, gaineratzen zuten sarritan personalki elkarte katolikoetan sarturik zeuden jeltzale kontserbadore hauek, hain zuzen ere bere etsai nagusiak, sozialismoak alegia, zatiketari etekinak aterako zizkiolako.

Katolizismo sozial apolitiko horren aurkako nazionalistek atzera bota zituzten tesi horiek, hain zuzen ere garai horretako katolizismoaren izaera politikoa eta antinazionalista ikusten zutelako. Elizaren hierarkiak erakutsitako alderdi monarkikoekiko sinpatiak salatuz, katolizismo sozialaren aurpegi izkutua erakusten zuten. Eskuindar monarkikoek katolizismo sozial ez-politikoaren ideia defendatzen bazuten, nazionalista horien ustez helburu zehatz batekin egiten zuten: euskal nazionalismoa indargabetzeko hain zuzen.

Azkenean, jeltzaleen artean, bigarren jarrera hau nagusitu egin zitzaion besteari batez ere bi arrazoiengatik. Alde batetik, nazionalismoaren etengabeko hazkundeak arrazoia ematen zien gizarte-arloan berezko inizatiba bat hastea proposatzen zutenei. Bestetik, 20. mendearen lehen hamarkadan gertaturiko langile-elkarte katolikoen beherakadak eta Gasteizko opezpikuarekin izandako gorabeherak beste horrenbeste egin zuten. Hori zela eta, Eusko Alderdi Jeltzaleak Sabinoren proposamen horri eutsi egin zion, alderdiaren barruan probintzia mailan "Comisiones de Acción Social" delako batzordeak sortuz. Bizkaiko batzordeak sindikatuaren sorrera prestatu zuen.

Zeintzuk ziren lehen sindikalista nazionalista horiek? Sindikalista horien perfil sozialari dagokionez, zenbait ikerlan berrik euskal sindikalista hauen eta Europako beste zenbait herritako, hala nola Ingalaterra, Frantzia edo Alemaniako langile-erakundeen arteko paralelismo interesgarria erakutsi dute. Aipatutako kasu guzti horietan, aurreneko langile-sindikatuak osatzen zituztenak langile koalifikatuak ziren,

sarritan artisauak izandakoak eta horrexegatik tradizio organizatiboa zutenak. ELAko bazkideei dagokionez, eraikuntzan eta Bilbo inguruko burdingintzan aritzen ziren gehienak. Patroien presio bortitza jasotzen zuten portuko langileen artean eta etorkin asko erakarri zituen meatzaritzan, berriz, ELAk arrakasta gutxi izan zuen.

Europako herrietako langile-mugimenduen eta ELAren arteko aipaturiko paralelismoak. Lehen Mundu-Gerran eta ondorengo urteetan ere jarraitu zuen. Oro har, garai horretan langile-erakundeetan "proletarizazio"-prozesua eman zen zentzu zehatz batean: urteotan, sindikatuetako bazkideen artean lehen baino langile gazteagoak, kalifikazio-maila txikiagokoak eta industri lantegi handiagokoak aurki ditzakegu. ELAri buruzko datuak oso eskasak baldin badira ere, hauxe erakusten digute argi eta garbi: sindikatu nazionalistak indarra industrigune handien inguruetako herrietan zeukala eta indar hori, hots, afiliatuen kopurua, urteen poderioz, gehitzen zihoala. Horrela, Primo de Riveraren diktaduraren atarian, Bizkaiko ELAk bertako UGTko afiliatu-kopurua ia berdindu egin zuen. Nolanahi ere, esan beharra dago berdinketa hori neurri handi batean UGT sindikatuaren 1921 eta 1923 bitarteko krisi latzaren ondorioa izan zela. Dena den, "afiliatu-tipoaren" perfil sozialari dagokionez, 1923an ez zegoen alde handirik ELA eta UGTren artean. Halere, salbuespen garrantzitsu bat aipatu beharra dago: industri arlo batean zenbat eta etorkin gehiago izan, hainbat eta nabariagoa zen ELAren ahultasuna arlo horretan. Izan ere, kanpotik etorritako langile ez-euskaldunak ELA sindikatutik *expressis verbis* bazterturik gelditzen ziren, sindikatuaren arautegiaren arabera

langile bati aurreneko lehen lau abizenen artean gutxienez bat euskaldun edukitzea eskatzen baizitzaion, afiliatu nahi izanez gero, alderdian Sabinoren garaitik hasita gertatzen zen bezalaxe. Hala eta guztiz ere, arau hori zenbateraino errealtatean ere aplikatu ote zen ez dago ateratzerik iturrietatik. Dena den, badirudi arazo horretan sindikatua bigunagoa izan zela alderdia baino. Izan ere, Lehen Mundu-Gerraren ondorengo urteetan arau horri buruzko eztabaida kritikoa piztu zen sindikatuaren aldizkarian. Eusko Alderdi Jeltzalearen prentsan, berriz, ez da eztabaida horren arrastorik ere aurkitzen.

Ideologia

Eusko Alderdi Jeltzalearen barrutik sortutako erakundea izanik, sindikatu eta alderdiaren arteko hurbiltasun ideologikoa ez da harritzekoa. ELAko diskurtsoaren ardatz nagusiak honako hitz hauetan laburbil litezke: anti-sozialismoa, baskismoa, katolizismoa eta klaseen arteko harmonia. ELA sindikatuaren lehen garaian nabaritzen den benetako ideologo eta buruzagirik eza zela eta, alderdiaren ideologoek mamitu zuten sindikatoaren diskurtsoa, hau da, batez ere “Kizkitzak” (E. de Aranzadi) eta zenbait elizgizonek. Izan ere, 1919an “El Obrero Vasco-Eusko Langilea” bere aldizkaria argitaratu baino lehen, “Euzkadi” izeneko alderdiaren egunkaria ELA sindikatuaren bozeramailetzat jo behar da. Bertan, bere artikulua “Langile” pseudonimoaz izenpetzen zituen ezezagun batek jorratzen zituen ea eguneroko bere kronikan mundu sozialeko hainbat gai, sindikatuari buruzko azken albisteak ere ematen zituelarik. Ez da harritzekoa, kronika horietan *mainstream*-eko nazionalismoarekiko adostasuna egotea gehien batean behintzat.

Halere, Lehen Mundu-Gerraren ondorengo urteetan sindikatuaren baitan ohizko ortodoxia sabindarra ez ezik, zenbait ahots kritiko ere azaldu ziren. Kritika horiek azalertzeko aldizkari propioak sindikatuari ematen zion autonomia erabat lagungarri suertatu zitzaizen sindikalista kritikoei. Hauek guztiz minoritarioak baldin baziren ere, beste zenbait arlotan ere antzeman zitekeen prozesu zabalago baten adierazleak dira, hots, klase-konziientziaren garapenaren adierazleak. Kritikak era askotakoak izan ziren: kanpoko langileen baztertzearen aurkakoak, eta batez ere, lehen aipatu dugun legez, “abizen-froga” lotsagariaren aurkakoak; jabetza pribatuaren sakrilegioaren aurkakoak, edo baita ere patroiklasearen eta patroik nazionalisten aurkakoak eta abar. Guzti hori, fenomeno minoritarioak izanda ere, sindikatu nazionalistak ideologia arloan ere burututako bilakaera historikoaren frogak dira. Izan ere, ELA sindikatua benetazko langile-sindikatu bihurtzen hasita zegoen, horretarako elkarte katoliko ororekiko parekotasuna eta alderdi politikoarekiko gehiegizko lotura pausuz pausu gainditzeko joaten zelarik.

Praxi sindikala

Bere bizitzaren lehen urteetan, era askotako mutualismo-ekintzek osatzen zuten nagusiki ELA sindikatuaren iharduera: bazkideei eskainitako heriotza-, gaixotasun- edo langabezia-aseguruak besteak beste. ELAko arduradunek publikoki behin eta berriro azpimarratzen zuten mutualismo honen garrantzia. Izan ere, “solidarioek” ederki ongi baitzekiten, zerbitzu sozial hauek garrantzi handia zutela langileak sindikatura hurbiltzeko orduan. Estatuaren ongizate eta babes sozialaren politika oraindik bere

hastapenetan zegoen une horretan, sindikatuak antolatutako zerbitzu horiek langile askorentzat beren bizimodua eta beren senideena zertxobait hobetzeko aukera bakarra baitziren.

Halere, mutualismoaz gain, ELAk Errestaurazio garaian ere zenbait gatazka sozialetan, batez ere grebetan, parte hartu zuen. Ekintza horien azterketa orokorrak honako bi emaitza hauek eman dizkigu: alde batetik, urteak aurrera joan ahala, ELAk gero eta disponibilitate handiagoa izan zuen grebak antolatu edo bertan parte hartzeko. Halere, sindikatu nazionalistak ez zuen inoiz bloke batu eta zentralizatu gisa funtzionatu, sindikatuaren sektore desberdinek autonomi maila handi samarra gordetzen zutelako. Beraz, erradikalizazio-prozesu horretan askotan portaera kontrajarriak aurki daitezke. Adibide esanguratsu bat besterik ez aipatzearren, honako hauxe azalduko genuke. Bilboko eraikuntza-arloan ELAk gero eta politika erradikalagoa erabiltzen zuen bitartean, "Astilleros Euskalduna" izeneko lantegi handian bertako nagusi nazionalistaren, hau da, Ramón de la Sota y Llanoren aurrean burumakur azaltzen zen ELA, kritikarik gabeko portaera guztiz biguna erakutsiz. Sotak ELAri eskaintzen zion laguntzaren truke eta lan-baldintza nahikoa onak ziurtatzeko asmoz, ELAk ugazaba nazionalistari laguntza ematen zion, plantilako langileen artean inolako ideia sozialista edo portaera ez-konformista heda ez zedin, Sotak kontrol ideologiko zorrotza aurrera eraman ahal izateko. Uzte gabeko ondorio honetara lantegiko artxiboan aurkitutako langile-fitxero batek eta lantegiko zuzendaritza eta sindikatoaren arteko zenbait gutunek eraman gintuzten. Fitxero horrek lantegiko

langileei buruzko milaka fitxa biltzen ditu eta fitxa bakoitzak hainbat datu interesgarri azaltzen dizkigu, hala nola soldataren zenbatekoa, langilearen jatorria, lanbidea, nork bidalia joan zen "Euskalduna" lantegira lan eske, noiz eta zergatik galdu zuen lana. Horretaz gain fitxa askotan lapitzez idatzitako ohar politikoak aurkitzen dira. Datu guzti horien azterketak emandako emaitzak hiru ondorio hauetan laburbil daitezke. Alde batetik, langile guztiek jasandako kontrol ideologikoa agerian gelditzen da. Bestetik, langile batek erakutsitako portaera ez-konformista eta despidoaren arteko koerlazioa oso altua da, edo modu zehatzago batez esateko, langile baten sozialistekiko sinpatiak ezagunak baldin baziren, hurrengo lan-krisian kalera botatuko lehenetarikoa bera izango zela. Hirugarren eta azkenik, ELA sindikatuak, praktika hauek ez salatzeaz gain, badirudi kontrol ideologikoa ezarri ahal izateko enpresaren zuzendaritzak eskatutako laguntza osoa eskaintzen ziola. Zenbait fitxak frogatzen duten bezala, enpresaren zuzendaritzak bazekien sindikatuko bazkideen artean nork ordaintzen zituen kuotak eta nork ez, hau da, zeintzuk ziren langile fidagarriak eta zeintzuk ez. Are gehiago: sindikatuari zuzendutako gutun batean eta inolako lotsarik gabe, Ramón de la Sota berberak eskatu zuen bazkide guztien zerrenda bat. Ez dugu sindikatuaren erantzuna ezagutzen, baina enpresak lehen aipatutako xehetasunak (kuotak) esku artean baldin bazituen, Sotak eta bere managerrek nahi zuten guztia ere arazorik gabe eskuratzen zutela pentsatu behar dugu.

Bestalde, ELAren praxi sindikala aztertuz, praxi horretan gatazka politiko eta ideologikoez zeresan handia izan zutela azpimarratu behar

ko genuke, ELAk beste sindikatuekiko zituen harremanek erakusten diguten bezala. Amankomuneko katolizismoa zela eta, ez da harritzekoa ELAk burututako greba gehienetan sindikatu katolikoek ere parte hartzea. Sozialistekiko harremanak, berriz, guztiz istilutsuak izan ziren. Oso gutxitan aurki ditzakegu biak greba batean elkarturik. ELAk edozein greba “politikori” uko egiten zionez, eta, ELAkideen ustetan, sozialistek langileen interesak politikoki manipulatu zituztenez, ELAko agintariek kasu gehienetan gogorki kritikatu zituzten UGTk bultzatutako grebak. Langile sozialistek, berriz, ELAko sindikalistak patroien aldekotzat eta eskiroitzat jotzen zituztenez, ELArikiko elkarlana normalean ez zuten planteatu ere egiten. Beraz, nahiz eta ELAk, batez ere Lehen Mundu-Gerraren ondorengo krisi sozioekonomikoan, bere diskurtsoa eta praxi sindikala erradikalizatu, sozialismoarekiko gatazka politiko eta ideologikoa zela medio, ELA eta UGTren arteko harremanak ez ziren normalizatu. ELA askoz ere hobeto moldatu zen sindikatu anarkosindikalistekin UGTrekin baino, horrelako gatazka politikorik ez zegoelako.

ELA eta nazionalismo politikoa

Lehen sindikatu eta alderdiaren arteko lotura estua, hasiera batean baita organikoa ere, aipatu dugu. 1911 ondorengo ELAko historia lotura horren pausuz pausuko biguntzearen historia da, hau da, ELAk alderdiarekiko emantzipazio-prozesuaren historia. Halere, nahiz eta emantzipazio eta autonomia hori bultzatu, ELAko buruzagiek ez zuten inoiz EAJrekiko haustura planteatu, horretarako arrazoiak egon bazeuden ere. 1918 ondorengo urteetako krisi latz horren ondorioz Euskadiko gizartean arazo soziala areagotu egin zenean,

alderdiaren buruzagiek, afiliatu askoren egoera sozial tamalgarriaren aurrean erreakzionatu eta erantzun orde, ohizko alderdiaren “neutralitate sozialari” eutsi egin zioten. Horrela, ortodoxia nazionalista kontserbadorearen eta nazionalismo sindikalaren desberdintasunak begi bistan gelditu ziren. Sindikatuko zenbait ahots kritikorentzat alderdiaren buruzagiek defendatzen zuten “neutralitate sozial” hori, programa sozialik eza eta alderdiaren inhibizioa gatazka sozial gehientsuenetan Euskadiko burgeseriari emandako eta gaizki moztutako laguntza baino ez zen.

Berrezarkuntza garaian, alderdia behin bakarrik saiatu zen sindikatutik eta Euzko Gazteditik zetozen kritika horiek benetan gainditzen. Donostian 1920ko maiatzeko alderdiko Batzar Nagusira deitu zuten, batzar monografiko batean arazo sozialarekiko alderdiaren jarrera finkatzeko asmoz. Halere, bitartean nazionalismoaren barruan arazo nazionala berriz ere piztu zelako, Donostiako batzar horretan egin beharreko arazo sozialari buruzko eztabaida bertan behera gelditu zen. Langile nazionalista frankoren haserreak alderdiaren batasuna hausten lagundu zuen, eta horrela 1921ean alderdiaren zatiketa gertatu zenean arrazoiatariko bat izan zen. EAJ berriak ELAko buruzagi batzuen sinpatia bereganatu zuen, horien artean Manu Robles Aranguiz zegoelarik, nahiz eta nazionalisten arteko gatazka politiko horretan sindikatuak bere burua ofizialki neutralizat jo. Dena den, garaiko iturri desberdinak bat zetozen EAJ berria alderdi “popular” bezala definitzerakoan. Comución Nacionalista, berriz, “aburgesatutako” alderdia zela zioten. Halere, Luis Arana Goirik, hau da, Sabinoren anai guztiz kontser-

badoreak, alderdi berriaren lehendakaritzat hartu zuenean, gauza bat agerian gelditu zen, alegia, politika sozialari zegokionez, 1921eko EAJK ohizko ortodoxiaren bidetik jarraituko zuela, eta horrek esan nahi zuen ez zela izango arazo sozialarekiko sentsibilitate handiagorik, ezta programa sozialik ere.

Ondorioa

Euskadiko kasuaren azterketak argi eta garbi azaltzen du nazionalismoaren indarra eta erakarpena muga sozialen gainetik gizarte osoan zabaldu dela. Ikusi dugun bezala, Lehen Mundu-Gerraren garaian Eusko Alderdi Jeltzalea klase burgesen arteko bere lehen arrakasta nabarmenak eskuratzen hasi zen urte horietanxe ELA sindikatuak ere hasi zuen bere gorakada, hau da, eusko nazionalismoaren hedapena eman zen bai "gora" nahiz "behera".

Beraz, gure uste apaletan behintzat, nazionalismoa ezin zaio *a priori* klase sozial zehatz bati lotu. Horrek, jakina, ez du esan nahi nazionalismoa klase-gatazken gaineko fenomeno abstraktua denik. Izan ere, gizarte-mailan ematen diren gatazka guztiak mugimendu nazionalistaren barruan isladatu egiten baitira, neurri batera edo bestera. Beraz, historialarion egin-beharra hauxe izan beharko litzateke: teoria *holistik* eta *a-prioristik* alde batera utzi eta metodologia konparatiboaren bidez nazionalismo mota, epealdi historiko eta baldintza politiko, ekonomiko eta kultural desberdinak bereizten hastea. Horrela, bai kasu desberdinen berezitasuna, nahiz beharrezko den abstrakzio-maila lortuko lukeen nazionalismoari buruzko tipologia osatzen joan beharko genuke, edo, artikulu honen izenburuari helduz, gure galderak ez luke izan beharko: ¿Langileak ba al dauka aberririk? Baizik eta: ¿Langileak noiz eta zein baldintzetan dauka aberririk?

Bibliografia

- Corcuera, J., (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904*, Madril.
- Elorza, A., (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco*, Donostia.
- Elorza, A., (1984): Le syndicalisme nationaliste au Pays-Basque, in: *Le Mouvement Social*, 128, juillet-septembre, 83-96 or.
- Fusi, J. P., (1979): *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*, Madril.
- García de Venero, M.,(1964): La Solidaridad de Obreros Vascos (1911-1937), in: *Revista del Trabajo*, 8, 9-27 or.
- Larrañaga, P. de, (1977): *Contribución a la historia obrera de Euzkalerria*, 2 ale, Donostia.
- Mees, L., (1991): *Entre nación y clase. El nacionalismo vasco y su base social en perspectiva comparativa*, Bilbo 1991.
- Mees, L., (1989): Nacionalismo vasco y clases sociales, in: *Estudios de Historia Social*, 50-51, 71-99 or.
- Mees, L., (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Bilbo.
- Mommsen, H., (1979): *Arbeiterbewegung und Nationale Frage*, Göttingen.
- Olábarri Gortázar, I., (1978): *Relaciones laborales en Vizcaya (1880-1936)*, Durango.
- Otaegui, M., (1981): Organización obrera y nacionalismo. Solidaridad de Obreros Vascos (1911-1923), in: *Estudios de Historia Social*, 18-19, 7-83 or.
- Wehler, Hans-Ulrich., (1963): *Sozialdemokratie und Nationalstaat*, Göttingen².